



ESKOLA PUBLIKO LAIKOA, DEMOKRATIKOA ETA KALITATEZKO BATEN ALDE.

Herritarren hezkuntza eta prestakuntza, gizarte berdintzaileago, solidarioago, justuago, trinkoago eta gaitasun handiago lortzeko bidean aurrera egiteko faktore estrategikoak dira.

ESKOLA pertsonak prestatzeko ezinbesteko tresna da, bai herritartasuna erabiltzeko, bai lan ekimenean garatzeko. Hezkuntza Sistemak lagundu behar eta ahal du ezinbestekoak diren aldaketak egiteko antolaketa sozial iraunkor bat erdiesten.

Administrazio publikoen ardura eta eginbidea da hezkuntza publiko sistema egituratzea, herritar multzoarentzat, kalitatezko eta berdintasunezko baldintzetan hezteko eskubide unibertsal eraginkorra bermatuko duena eta norbanakoen eta kolektiboen ezberdintasunak berdinduko/orekatuko dituen.

Ez gatoz bat gizarteko sektore eskuindarrenek, komunikabide batzuen laguntzarekin, egiten dituzten analisi katastrofistekin, ikasleen errendimendu akademikoaz eta eskolako elkarbizitzaz eta gure hezkuntza sistema publikoaren ustezko osasun txarrari buruzkoaz. Nafarroako Eskola Publikoak azken urte hauetan izan dituen erronkei aurre egiten jakin du, berdintasunezko hezkuntzan aurre egiten, norbanakoen aniztasunaren errespetuan eta onespenean, premia bereziak dituzten ikasleak gizarte barruan sartzeko bermea izan da eta ahalegin handia eginez nafar ikasle etorkinak eskolatzen, bai eskolan bai sozial mailan integratzeko eragile garrantzitsua izan da.

Agiri hau sinatzen dugun erakundeek: HERRIKOA ikasleen guraso elkarten federazioa, CCOO irakaskuntza, STEE-EILAS, ELA, LAB, BATZARRE, ARALAR eta SORTZENek


Aldarrikatzen dugu **titulartasun eta GESTIO PUBLIKOA duen "eskola bat"**, Hezkuntza Sistema osoaren ardatz nagusia eta oinarritzkoa izango dena. HAMABI puntu proposatzen ditugu:

Bat.- IKASTETXEEN SARE PUBLIKO BAT, herri eta hiri guztietan egongo dena eta Nafarroako Hezkuntza Sistemaren bizkarrezurra izango dena.

Bi.- ESKOLA PUBLIKO LAIKOA, ikasleen, senitartekoen, irakasleen eta ikastetxeetako langile guztien erlijio, kontzientzia eta pentsamendu askatasuna errespetatuko duena. Eta honen ondorioz, diru publikoaz finantzaturako ikastetxeetatik erlijio ikurrak eta doktrinatzeari erretiratzea.

Hiru.- KALITATE ONEKO ESKOLA PUBLIKOA, ikasle guztien hezkuntza arrakastaren alde lan egingo duena.

 nafarroa@stee-eilas.org

 948212355



Lau.- ESKOLA PUBLIKO INKLUSIBOA, guztiontzat, non inor ez den kaleratzen ez bazterten arrazoi ekonomikoengatik, sexuagatik, erlijioagatik, pentsamenduagatik, kultura edo adinagatik:

Eskola hezkidetzaila edozein bazterketa ezabatuko duena eta gizon-emakumeen arteko berdintasuna bermatuko duena.

Ikasleen bizitokitik hurbil dagoen ikastetxean **eskolatzea** lehenetsiko duena.

Bost.- Sexuagatik edo edozein inguruabarrengatik ikasleak **bazterten dituzten ikastetxeei finantzazio publikoa kentzea.**

Sei.- ESKOLA PUBLIKO BERDINTZAILEA non denok elkar berdintzat hartzen dugun, duintasunean, eskubideetan eta betebeharretan Hezkuntza Sistemako etapa guztietan, 0 urtetik goi hezkuntzaraino eta bizitza osoan zehar.

Zazpi.- NAFARROA OSOAN EUSKARAREN NORMALIZAZIOA AHALBIDERATU ETA SUSTATUKO DUEN ESKOLA PUBLIKOA.

Zortzi.- DOAKO ESKOLA PUBLIKOA beharrezko bitarteko guztiak dituen hezkuntzarako pertsona guztiek duten eskubidea gauzatzeko, bizitza osorako beren garapen pertsonalerako ikasbide nagusiak eta beharrezkoak emango dituena.

Bederatzi.- GUZTION ESKOLA PUBLIKO DEMOKRATIKOA gatazken trataeratan negoziazioa eta elkarrizketa erabilpenean oinarritutako prozedurak eta praktikak sustatu eta ezarriko dituena. Inguruari eta hezkuntzako komunitate guztiak eskolako bizitzan parte hartzeari irekia irekia izango den eskola.

Hamar.- FINANTZAZIO NAHIKOA BPGren %7 lortzen lagunduko duena, egiaz hezkuntza sistema hobetzeko, ikastetxe publikoentzat azpiegitura eta hornidura egokiak bermatzeko.

Hamaika.- LANBIDE HEZIKETAREN GARAPENA lan merkatu eta norbanakoaren beharrei erantzuna emango diena. Kalitateko heziketa eskaintza: hasierako eta etengabeko prestakuntza sustatuko duena. ustiapen sektoreetan

azaltzen diren teknologia, antolaketa eta sozio aldaketei egokituko zaiena eta sexu esteretipoak apurtuko dituena.



nafarroa@stee-eilas.org



948212355



Hamabi.- UNIBERTSITATE PUBLIKO MODERNOA, KALITATE ONEKOA bai irakaskuntzan bai ikerkuntzan, beste unibertsitateekin, lanbide heziketako ikastetxeekin, enprekin eta giza inguruarekin elkarlanean aritzea eta lankidetzaz sustatuko duena. Goi-Hezkuntzaren Europar Eremura egokitzea bermatuko dituzten aurrekontuez hornitua. Bereziki, titulazioen katalagoa handitzearen alde egiten dugu, bai giza baliabideak bai baliabide materialak optimizatzeko.

Iruñea, 2010ko apirilaren 29a



nafarroa@stee-eilas.org



948212355